

DIRU-ITURRIAK

Gure proiektua ahalbidetzeko beharko ditugun diru-sarrera nagusiak, gure produktuagatik bezeroek ordainduko duten prezioa, zerbitzu teknikoagatik ordainduko dutena eta gobernutik jasoko ditugun diru-laguntzak izango dira.

Bezeroek gure produktuagatik eta zerbitzu teknikoagatik, prezio onargarri bat ordainduko dute (<https://sousamahaiak.webnode.es/>). Hauek gure produktua salduko den dendetan eros dezakete bai eskudirua erabiliz, bai txartela erabiliz. Horrez gain, gure web orrian txartela erabiliz gure mahaiak erosteko aukera izango dute.

Hasieran, enpresak inbertsio handia egin beharko du, beraz diru laguntzak beharko ditugu enpresari hasiera emateko. Laguntzak hainbat lekutatik lortu ahal izangoditugu, gehienak gobernuak emango dizkigu, baina enplegu kapitalizaziotik, laguntza berrikuntzari, laguntza elkarte autonomikoengandik eta hezkuntzatik lortzea ere espero dugu. Lehenengo urtean 50-100 mahai saltzea espero dugu. Enpresari hasiera emateko 25.000€-ko diru kantitatea beharko genuke guztira. Kontuan hartuta diru laguntza guztiak eta gure inbertsioak. Gainera, aipatutako funtsezko elkarteak inbertitu dezakete gure enpresan.